

Puntuak

**Oihane
LARRETXE
DE LA GRANJA**

Aldaketak datoz eta familien baitan kezkak sortu dira prozesuak ezaugarri berriak dituelako. Ireki da gure umeak Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatzeko epea. Xedea segregazioa amaitzea da eta, horretarako, ikasleria zaurgarria hobeto identifikatu nahi da. Horraino, ondo goaz. Ez dadila inor bidean gelditu.

Eskola asignatzeko garaian puntuen banaketa aldatu da, eta hor sortzen zaizkit zalantzak. Aurrerantzean, bizilekua-
rekiko hurbiltasunak pisatuko du gehien. Zentroetan, kuota bat gordeko da antzeman litekeen ikasleria zaurgarriarentzat. Donostia adibide jarrita,

esango nuke hiria bera segregatuta dagoela, eta errenta mailak oso bestelakoak direla auzo batetik bestera. Hala, gertutasunaren irizpidea dela eta, gela berean ez da sekula nahastuko elitea hilen bukaerara ailegatzen ez denarekin. Segregazioa aurretik dator eta segregazio mota hori ez da aldatuko.

Aldaketak direla medio, aurretik seme edo alaba zaharrago bat eskola jakin batean izateak ez ditu lehen bezainbeste puntu emango, eta atzetik datorren haurrak ez du plaza ziurtatua izango. Eta hemen datoz komeriak. Hezkuntza Sailak esan du familien aldetik ez duela errezelarik espero. Horrela suertatuko balitz, non sustraitu? Non ehundu ha-

rreman sarea? Non sortu komunitatea? Itxaropentsua naiz, eta tragikoa bada ere, jaiotza-tasa baxuan dut konfiantza.

Era berean, haurren egoera sozioekonomiko eta kulturalaren soslaia egiteko, familiek galdetegi bat erantzun behar dugu, nahita ez. Zenbat bainugela dituzue etxean? Zenbat auto? Prentsa irakurtzen duzue? Tranparako tartea dagoela ez dugu ukatuko. Zer erantzun bakoitzak baloratuko du.

Puntu kontua denez, ikastetxe bakar bat ez, gutxienez bi aukeratzera derrihortuta gaude. Eta B planik ez balego? Ez da errezeloa, jaun-andreok, kontziliazioaren izenean bizimodu eramangarri bat izatearen beharra baino ez. •

Bartzelonatik Tel Avivi, adeu

Koldo SAGASTI

Otsailaren 8an, historikoa izanagatik, prentsako letra txikira zokoratuta geratzen diren albiste horietako baten berri izan genuen. Ada Colauk, Bartzelonako alkateak, agerraldi ofizial batean jakinarazi zuen konde-hiriak Israelekin dituen harreman instituzionalak bertan behera utziko dituela, Palestinako populazioaren kontra ezarrita duen apartheid erregimenak dirauen bitartean. Era berean, Tel Aviveko Udalarekin duten senidetze akordioa ere eten-
go dutela iragarri zuen. Bartzelona, Gaza eta Tel Aviv lotzen dituen hitzarmena 1993an sinatu zuten, Osloko Itunen ondorengoetan, keinua balizko estatutu palestinar baten sorrera prozesuan akuilua izango zelakoan, baina hiru ha-

markada geroago agerian geratu da sinatzaileetako batek, Israelek, hasieratik ere ez zuela sinatutakoa betetzeko inongo asmorik izan. Gauzak horrela, erabaki zentzuzkoena da, udal buruaren hitzetan, gaur egungo testuinguruan inongo zentzurik ez duen harreman hori amaitutzat ematea.

Iragarpenak, segur aski, ez du ondorio praktikorik ekarriko apartheid erregimenaren mende egunero bizi diren palestinarrentzat, baina balio sinboliko handiko keinua da, Bartzelona baita Tel Avivek Mediterraneoaren beste aldetik historikoki bilatu duen hiri moderno eta kosmopolitaren eredua. Horren erakusle izan dira estatu sionistaren ordezkaritza eta haren aliatuen erreakzio suminduak. Protokoloari jarraituz, anti-

semita izatea leporatu diete ekimen honen sustatzaileei.

Baina horiek ez dira adierazpen instituzionalak jasan dituen gaitzespen bakarrak. Kataluniako zenbait hedabidek asmo elektoralista ikusi dute Colauren iragarpenean. Ez dakit alkatea giza eskubideekiko konpromiso zintzoak bultzatu ote duen erabaki hori hartzera, edo botoak eskuratzeko grinak. Nolanahi ere, hala balitz, pentsatzekoa da aldaketa soziologiko sakon bat gertatzen ari dela, baldin eta alkatetza irabazteko aukera duen alderdi baten kanpainako aholkulariek uste badute Israelgo apartheid erregimena irmo salatzea errentagarria izan daitekeela hauteskundeetan. Hala bada, baliteke Katalunian haizea Palestinaren alde jotzen hastera. •